

EITBk eta Ibaiak hitzarmena sinatu dute

Elkarlanaren bidez, ikus-entzunezkoak industria garrantzitsu bihurtzea nahi dute

Lore Agirrezabal / Donostia

Ikus-entzunezko komunikabideen alorrean aurrera egiteko hitzarmena sinatu dute EITBk eta Ibaia Ikus-entzunezko Euskal Ekoizleen Elkarteak. Horri esker, EITBk datozen hiru urteetan 4.500 milioi pezeta inbertituko ditu (180 mila libera) ikus-entzunezko ekoizpena sustatu eta alor horrek industria izaera har dezan.



Andoni Ortuzar, Mari Karmen Garmendia eta Iñaki Gomez, EITBren eta Ibaiaaren arteko hitzarmena sinatzen.

IKUS-ENTZUNEZKOEN alorra etorkizunari hain hertsiki lotuta dagoen garai hauean, oso garrantzitsutzat jo dute hitzarmena EITBk, Ibaia eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Erabaki estrategikotzat jo du Andoni Ortuzar EITBko zuzendari nagusiak. Izan ere, Ortuzarrek adierazi duenez, hitzarmenaren asmoa Euskal Autonomia Erkidegoan ikus-entzunezkoen sektore industrial bat eratzea da. Bere hitzetan, «ekonomiari dagokionez, alor hau uneotan sortzen eta indartzen ari da; bestalde, herrialde bezala gure edukia ekoizteko gai izan behar dugu, EITB bezalako komunikabide baten zaila baita nazioarteko produktuak erostea». Ibaia elkartearen presidentea Iñaki

Gomez iritziak, «Euskal Herrian, bertako enpresen bidez ikus-entzunezko edozein produktu ekoiz daiteke, eta geroz eta gehiago produktu multimediatikoak». Horri heldu eta sektore horren beharrak zehazteko funtsezkoztat jo du hitzarmena.

Izan ere, bi erakundeak urteetan ibili dira elkarlanean, baina akordio honekin hainbat baldintza eta erabaki zehaztu dituzte. Horri lotuta, EITBk 4.500 milioi pezeta inbertitu ditu datozen hiru urteetan bertako ekoizpenak sustatzeko (180

mila libera), eta Euskal Herriko ekoizpena gehitzeko ahalegina egingo dute. Bestalde, koproduzioak aukera emango die etxean ekoiztitzeko beste herrialdeetara zabaltzeko.

Kultura eta ekonomia

Mari Karmen Garmendia Kultura sailburua adierazi du kulturaren eta ekonomiaren arteko harreman gero eta estuagoak bultzatu dutela akordioa, «diruz eta baldintzaz, etorkizunari begira dagoen hitzarmena

da; zailtasunak gainditu eta begien aurrean ditugun erronkek erantzuna izan dezaten izenpetu dugu». Eguneko beharretara egokitu, industria ikuspegiari lehentasuna eman eta nazioarteko merkatuetara iritsi beharra dagoela azpimarratu du Kultura sailburua. Andoni Ortuzarrek gaineratu du ikus-entzunezkoen merkatua gutxi batzuen eskuetan dagoela, eta begi-bistakoa den «kolonizazio» arriskuari aurre egiteko asmoz egin dutela elkarlanerako akordioa.

laburrean

Antena 3n % 6,23ko partaidetza izateko asmoa duela agertu du RTL taldeak

Telebista, irratia eta edukien ekoizpenean nagusi da RTL taldea. Berau Bertelsmann, Audiofina eta Pearson konpainiek telebistaren alorrean dituzten interesei erantzuteko sortu da. Lehendik Antena 3 katean badu %10eko partaidetza, baina orain beste %6,23 eskuratzeko asmoa du. Horrekin, Europako hegoaldeko merkatuan eta Espainiakoan bere postua indartu nahi du. M6 kate frantsesean, berriz, dagoeneko %42ko partaidetza du.



Gaixotasun berriak sortzeko arriskua telebistaren eta bideo-jokoaren ondorioz

Egungo haurrek bideo-jokoetan eta telebista ikusten denbora larregi ematen dutela eta, gaixotasunak jasateko arriskua dutela adierazi du Gabriel Inclan Osasun sailburua. Haurren Gaitzei buruzko Nazioarteko III. Jardunaldietan egin ditu adierazpenak. Duela urte batzuk Anorexia eta Bulimia ziren bezain ezezagunak dira gaur egun gaixotasun berri horiek, Osasun sailburuaren iritziak.

Gaur hasiko da 'El Bus', Antena 3ko saio berria

Udazken honetako multimedia saioetako bat da *El Bus*. Gestmusic-Endemol etxeak Antena 3 katearentzat ekoiztu du saioa, eta Ines Ballesterrek aurkeztuko du, Liborio Garciak lagunduta. Bi pisuko autobus batean ehun egun egiten dituenarentzat izango da sari nagusia.

Telesail eta aurpegi berriak ETB2an udazkenean

■ Barne produkzioko saioak, albistegiak eta lehiaketak izango dira berrikuntza nagusiak

Erredakzioa / Donostia

ESKAINITZA berri ugariarekin hasiko du ETB2 kateak denboraldia. Berrikuntza gehienak iluntzean eskainiko dituzte; telesailak, esaterako. Izan ere, denboraldi honetarako bost telesail ekoiztu ditu ETBk; horien artean, *Campus* eta *Platos sucios* izango dira bigarren katean. Kanpoko produkzio-

en artean, berria *Edición anterior* izango da, Estatu Batuetan arrakasta handia izan duen telesaila. Bestelako saioei dagokienez, berriz, *Euskal Herria: la mirada mágica*, *Números rojos* eta *Gran Parchís*-en aldeko apustua egin dute. Informazioaren alorrean, eguerdiko albistegian, aurpegi berriak: Africa Baeta eta Juan Carlos Etxeberria kazetariarenak.



Denboraldi berria hasi du ETB2 kateak, zenbait berrikuntza tarteko.